

Gure proiektuarekin konpondu nahi dugun arazoa nahiko argia da: gaur egun, futbol jokalaria gazte askok ez daukate euren talentua erakusteko leku on eta profesional bat. Azkenean, klubetara heltzea zorte kontua bihurtzen da, edo norbait ezagutzea. Horrek asko frustratzen ditu, askotan maila asko daukatelako, baina ez aukera.

DraftMe-k hori konpontzen du. Gure plataformak jokalariei aukera ematen die beraien profila sortzeko eta munduari erakusteko, modu serio eta ordenatuan. Estatistikak, bideoak, partiden momentu onenak... dena toki bakarrean, eta hori klubek eta ojeatzaileek zuzenean ikus dezakete. Hau da, jokalariek ikusgarritasuna lortzen dute, eta ez dira "galdu" egiten sare sozialen, webguneen edo WhatsAppen artean.

Bestalde, klubentzako ere oso erabilgarria da. Askotan, talentua aurkitzea zaila da, eta denbora asko galtzen da partiduetara joanez edo informazio bila. DraftMe-rekin klubek jokalaria egokiak modu azkar eta errazean aurki ditzakete, filtroen bidez (adina, posizioa, eskualdea...), eta horrek scouting lana asko hobetzen du.

Azken finean, gure balorezko proposamena hau da:

- Jokalari gazteei aukera gehiago ematea.
- Klubek talentua azkarrago eta hobeto aurkitzea, dena plataforma bakar batean.